2. Egoeren taula eta diagrama

2.1. Egoera-diagrama

Aurreko gaian azaldu dira biegonkorren funtzionamendua deskribatzeko bi baliabide, *kitzikapen-taula* eta *egoeren diagrama*. Kontzeptu horiek oinarritzat hartuta, sistema sekuentzial sinkronoaren (SSS) egoera-diagramaren kontzeptua gara daiteke. Hortaz, SSS baten funtzionamenduaren adierazpen grafikoa egoera-diagramaren bidez egingo da. Han, zirkuituaren egoera posibleak (A, B, C…) zirkulu baten bidez adierazten dira, eta egoera batetik beste baterako trantsizioa, gezi baten bitartez. Trantsizio hori sorrarazi duten sarreren balioa geziaren gainean jarri behar da. Horiek horrela, egoera batek irteerako geziak zein sarrerako geziak baditu, egoera hori *oraingo egoera* eta beste egoera baten *hurrengo egoera* izango da. Kontzeptu horiek 190. Irudian adierazi dira.



190. Irudia

2.2. Egoera-taula

Egoera-taula SSSen funtzionamendua deskribatzeko beste modu bat da, eta *kitzikapen-taularen* kontzeptuan dauka oinarria. Hortaz, bi ardatz bereizi daitezke: batetik, ardatz bertikala, sistemaren egoera posible guztiak (oraingo egoerak) finkatzeko; bestetik ardatz horizontala, sistemaren sarrerek har ditzaketen konbinazio-balioak adierazteko.

Oraingo egoera eta konbinazio-sarrera bikote bakoitzaren gurutze-kutxatilan sistemaren hurrengo egoera adieraziz osatzen dira taularen errenkadak (191. Irudia) egoera-diagrama aintzat hartuta.



191. Irudia